

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Maiatzeko kultura egitaraua /08**

JAIA

**Aitzorrotz Eguna, domekan /09**

LEINTZ GATZAGA

**Bukatu dira KZGuneako ikastaroak /10**



**MAIATZA KULTURA  
EKITALDIZ GAINEZKA  
EGUENEAN 'HITZAK PATRIKETAN' ANTZERKIA**

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA, EUSKARAREN EGUNA ANTOLATZEKO/4 • KIROLAK: SQUASH TXAPELKETA/6**



**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 1**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 2**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarteak .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZGunea .....	943 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 79 74 58
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Taxi geltokia .....	943 77 12 64
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALTAINGOIA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39 |

**LARRIALDIAK**

SOS Deiak .....	112
Eskualde Ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaintza .....	943 53 47 20
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Larrialdiak .....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati) .....	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA**  
Domekan 11:30ean.

**MENDIOLA**  
Domekan 12:30ean.

**GALARTZA/IZURIETA/GELLAO**  
Ez dute mezarik esango.

**OHARRAK**

**SINADURA BATZEA**  
Europako hauteskundeetan parte hartzeko Herritarren Zerrenda taldeak sinadura batzea deitu du. Udaletxean egingo dute maiatzaren 8a bitartean: astelehenetik eguenera 09:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 18:00etara; egubakoitzetan 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:00etara. Maiatzaren 8an, zapatua, 11:30etik 13:30era.

**UDAK BATZARRA**  
UDA kirol elkarteak ezohiko batzarra egingo du maiatzaren 6an, 19:00etan, kultura etxeko bideo gelan.

**UMEENDAKO ANTZERKIA**  
*Hitzak patriketan* antzezlan-a aurkeztuko dute Aitzpea Goenaga eta Iñaki Berætxek 3 eta 8 urte bitarteko umeendako. Eguenean izango da, 17:00etan, Kurtzebarri eskolan.

**SQUASH TXAPELKETA**  
Kirol Zerbitzuak squash txapelketa antolatu du kirol etxean. Izen emateko epea eguaztenean bukatuko da.

**ERROMESALDIA LOURDESERA**  
Elizbarrutiak antolatuta Lourdesera erromesaldia egingo dute gaixoeak. Aurten maiatzaren 21etik 24ra bitartera egingo dute. Eguneko erromesaldia, ostera, maiatzaren 22an izango da.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**BATUKADA IKASTAROA**  
Loramendi EEk antolatu du, Euskararen Egunean perkusio taldeak herriko kaleak girotu dituzan. Zapatuetan ematen ditu eskolak Martin Antxiak, 11:30ean, udaletxe zaharrean.

**MATXINEN BAKARRIZKETA**  
Matxinek bakarrizketa umoretsua eskainiko du maiatzaren 14an, 22:30ean, Ezkutu tabernan.

**ORAINDELA 18 URTE ARETXABALETAN**

**Urats-Gain zaharren egoitza zabaldu zuten**

Hiru egoiliar zituela zabaldu zuen Udalak Urats-Gain zaharren egoitza 1986ko apirilean. Errekabarraren kalean jarri zuten, eta Begoña Arenaza izan zen lehen zuzendaria. Bere kasa moldatzeko gai ziren nagusiak ziren gehienak orduan; gaur egun, ostera, ezintasunak dituztenak gehiago dira.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**“Zurrutero”**

Edale ona.  
—Zurruteru majua eindda dago.



**ZORIONAGURRAK**



ESKORIATZA  
**Alazne Miguez**  
21ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Itsaso Eraña**  
27an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Edurne Sanchez**  
27an, 8 urte. Zorionak! Osaba-izebak eta Aitor eta Jon lehengusuak.



ESKORIATZA  
**Pablo Berezibar**  
29an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Malen eta etxeko guztiak.



ARETXABALETA  
**Iban Gonzalez**  
Maiatzaren 1ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen partetik.



ARETXABALETA  
**Gaizka Agirre**  
2an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Unai Beloki**  
2an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**BABESLEA**

**PHOTOSYNTHESIS**  
argazkilaritza

**35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.**

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak  
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**



**HAN GOITIK ITSASOA IKUSTEN DA**

Julen Gabiria  
Elkarlanean, 2004  
232 orrialde

Euskal Herrian hasten da Gabiriaren nobela berria, 36ko gerran atzerrira joan behar izan zuen mutikoarekin; baina gero, Gino Bartali txirrindularia ezagutzeko aitzakiarekin, Bigarren Mundu Gerrako Italiara garamatza. Nobela berezia da; izan ere, istorio bereziak eta ukitu surrealista dutenak ditu: ogietan gereziak sartzen dituen okinarena, film amerikarrak ezkutan botatzen dituen zinemako langilearena, Bartalirena, eta abar... Injustiziaren aurka nolabait zerbait egiten duten pertsonak dira denak.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**KiXkur**  
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala  
Ile-luzatzeak  
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

**Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

**Aretz**

**taberna**

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



## ATREBENTZIAEZPADA/ Langillien Egune aldarrikatu egin biherra daukou? Zuk ze lortu gureko zeuke?



**ANE LEIBAR**  
Langillie

Bai. Lan orduak eta familia bizitza bateratzeko garai da. Oso laguntza gutxi dauz lan egiten dauden amandako. Ez erakundiak, ez enpresak ez die akordetan ume txikixek daukienekin.




**JOSE RAMON SAEZ DE GORDO**  
Langillie

Bai, jakiña. Lan egonkorra eskatuko neuke, ez erdizpurdiko kontraturik, eta egoeriaz aprobetxetan dien enpresarik ez daille egon. Lana guztiondako egon daille be eskatuko neuke.



**KARMELE IGARTUA**  
Langillie

Esan leike baietz, biherra dauelako egingo da-eta. Azken urtietan lehen lortutako eskubide batzuk atzeratute dauzela uste dot, eta langilliek betiko burrukekin dabitz.



**ALBERTO GARRO**  
Langillie

Hobetu gure badou beti euki biher dou zerbait aldarriketako bai langillioek, bai enpresek. Ni neu ezin naz askorik kejavu: opor onak dauket, bizi izeteko lain jasotzen dot... Lan gutxiu iguel.



**MANOLI GARCIA**  
Langillie

Bai, horixe. 35 lan orduak lortzen aldeke naz. Guztiondako lana eskaketan dot, eta neuretako gutxiu, lan larregi dauket-eta. Langillien alde egiten dien ekitaldixetan parte hartu izen dot.



**GAIZKA MONDRAGON**  
Langillie

Gauza asko dauz ondiokan lortzeko. Eskatuko neukena: soldatak gora, kontratu hobiek, eta lan ordu gutxiu jente gehixauk lan egin daiten. Egun horretan, baiñe, lan egittie tokau izen jat.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK ZUHAITZ GEHIAGO BIDEGORRIAN** Bide dotorea egin ziguten Bainuetxetik Urkulura. Iaz zuhaizka batzuk landatu zituzten bide bazterrean, eta dagoeneko hasi zaizkie hostoak ateratzen. Orain, txabolak baino goraxeago zuhaitz gehiago landatu dituzte; hauek, gainera, aurrekoak baino mardulagoak dira. Hostoak ateratzen zaizkienean gerizpe ederra emango dute. / M.A.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Kultur ekitaldiak

Maiatzerako hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu Kultura Sailak; antzerkiak izango dira nagusi.

ASTEAN BEHIN /05

#### Herritarren parte-hartzea

Herritarren laguntza gura du Loramendi EEK aurtengo Euskaren Eguna antolatzeko.

KIROLAK /06

#### Squash txapelketa

Squash txapelketa antolatu du Udaleko Kirol Zerbitzuak. Zabalik dago izena emateko epea.

### ASTEKODATUA

# 30

#### ATZEGIZALE EGIN ZIREN DOMEKAN HERRIAN

Atzegizaleak egiteko kanpaina egin du Atzegi elkarteak. Aretxabaletan mahaia jarri zuten Aratz elkarteak kideek domekan 12:00etatik 14:00etara bitartean, eta 30 Atzegizale egin ziren.


### BESTEKEKESANA

**“** Otala Zelaiko 26. krosa bi aste atzeratzea pentsatu dugu aurten. Horrela Otala Zelai egunarekin batera egingo dugu, eta bertan hasi eta bukatuko da. Horrela, bada, bi kilometro gehiago izango ditu aurtengo ibilbideak.

Aldaketaren helburua da herritarren parte-hartzea bultzatzea. Izan ere, ez dakit zergatik baina Behobia-Donostia bezalako lasterketetara jende asko joaten da gure herritik, eta Otala Zelaikoan, ostera, ez dute hainbestek parte hartzen. Kanpotik etortzen dira parte-hartzaileak, sari bila datozen lasterkariak, baina bertakoak betikoak izaten dira. Arrazoia ez dakigu zein izan daitekeen, eta hori bultzatzeko erabaki dugu krosaren eguna aldatzea.

ASIER MUXIKA  
GOITB/04-04-28

### HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



#### Emakumearen aurkako erasoez

Otsailaren azken aldera, izkina honetan bertan, Zer gertatzen zaigu gizonetzko? izenburua zuen testuarekin agertu nintzaizuen. Horixe; agertu egin nintzela, zeren testua ez zen nik idatzitakoa. Lan dezenterekin nenbilen orduan eta ezin izan nuen burutu. Nire zuloa bete zuten, baina, zorionez. Egia esan gainera, mataza korapilatsua bezain mamitsua haritu zen testu hartan: tamalez, sarri samar hitzetik hortzera dabilen emakumearen aurkako indarkeria.

Zaila da, horrela, eraso horien aurrekariak zeintzuk diren esatea. Ezin baztertu testu hartan esandakoa, baina bestelako zer batzuk ikusten ditut nik. Erasotzailearen gaztaroa, helduaroa... bizimodua oro har aztertu beharko litzateke. Iritzi hark, erasoen arrazoia, gaur egun emakumearen bizimoduak dakarren aldaketa dela eman zidan inpresioa; nolabait,

gizonetzko mehatxagarri ikusten dugula aurre hartze hori. Hein batean, emakumeak etxetik kanpo lan egitea, gizonetzko batzuk baino soldata hobe irabaztea, edota ikasketa maila altuagoa lortzea, zenbaitentzat mehatxagarri izan liteke, baina, ez nuke

motibo nagusitzat joko. Ezta aurrerapauso horri “aurrea hartzea” etiketa jarriko ere. Argi! Esan nahi dudana da, ezin garelako hasi gizonetzkoak “erasotzaileen” zakuan sartzen eta emakumezkoak “erasotuen”;

**“Esan nahi dudana da, ezin garelako hasi gizonetzkoak erasotzaileen zakuan sartzen eta emakumezkoak ‘erasotuen’”**

generalizazioetan jausteko joera saihestu behar dugula. Garbi dago emakumearen kontrako indarkeria mota hau ez dela goizeko kontua, emakumearen “aurrerakada” baino askozaz lehenagokoa da eta. Hain zuzen ere horregatik igo da azken urteotan salaketa kopurua: emakumearen autonomia eza eta analfabetismoa behingoz beratzen hasi direnean. Esateko asko dago baina lekua gutxi, hurrengo arte.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





M. J. Aretxaga

## Kiroletako gorabeherak

**E**z naz ni kirol kontuetan adittue, baiñe neure iritzitxue badauket. Azken astiotan, gaiñera, nehikue zeresan emun dau UDA kirol elkartiek. Interneteko Goiena.net webgunien eztabaidarako gai jarri euien, eta uste barik iritzi asko izen dittu. Batzuk kritikak die, beste batzuk kezak. Normala da era guztixetako iritzixek jasotie, eta izenik emun biherrik ez dauenez gehixau. Orokorrien, hala eta be, kezkie dala nagusi esango nauke; UDA desagertuko ete dan kezkie. Ez dot uste hori pasauko danik, beti dazelako gure herrixen lagunketako gertu dazenak. Kritikak egittie ondo dau -dana ez euilakondo egingo oin arte egon dienak- baiñe gustetan ez jakune konponketako bertara jotie da onena, kasu honetan UDARA. Hala, datorren eguenen, maiatzak 6, batzarra egingo daue barriro UDARA zuzendaritzako kidiek. Han eukiko daue bazkidiek gure dauien dana esateko aukerie, eta entzuteko be gertu daz. Txoritxo batek esan dust, gaiñera, zuzendaritza batzorde barrixe aurkeztuko dauen moduen. Ia hala dan, eta oin zuzendaritzan dazenen burukomienek bukaketan dien.

Ez neuke kirol kontuekin bukatu gure herriko neska bin izenak esan barik. **Jenni Guerrero** eta **Lur Delgado** die eurak. Futbolien jokaketan daue, eta oin egun batzuk, Realak deittute, entrenamendu saio baten egon zien. Ez dakixe deittuko dutzien edo ez, baiñe egindekue ez dau txarto eta oso pozik daz. Izen be, neskan futbol taldie edarto dabil, eta jokaketan dabitzen txapelketie, hau da, kopie irabazteko aukera haundixek daukie. Aurrera, ba!

**KULTUR EKITALDIAK/** Bigarren aldiz ekarriko dute 'Kutsidazu bidea, Ixabel' antzezlan, jende asko geratu zelako ikusi barik

# Antzerkiak, hitzaldia eta kontzertua antolatu ditu Kultura Sailak maiatzerako

MIRARI ALTUBE


Ekitaldiz betetako maiatza gertatu digu Kultura Sailak. Antzerkiak umeendako zein nagusiendako, hitzaldia eta kontzertua izango ditugu. Tartean, Ojala Zelai eguna ere bai. Hortaz, aretxabaletarrok ez dugu aspertzeko astirik izango datozen asteotan.

Kultura Sailak beti antolatu gura izaten ditu kultur ekintzak maiatz inguruan. Aurten ere halaxe egingo du, eta antzerkiak izango dira nagusi hurrengo hilabetean.

### FORMATU TXIKIKO ANTZERKIAK

Maiatzaren 16an Ojala Zelai eguna ospatuko dugu. Hori aitzakia hartuta eta hilabetea borobildu guran beste kultur ekitaldi batzuk antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin.

"Formatu txikiko antzerkiak ekarriko ditugu, umeendako zein nagusiendako", dio Inma Miguel kultura teknikariak. "Ez dute aparteko lokalik eskatzen, eta aktore ezagunek parte hartzen duten antzezlanak dira". Hala, datorren eguenen, maiatzak 6, *Hitzak patriketan* antzezlan ikusiko dute 3 eta 8 urte bitarteko umeek Kurtzebarri eskolan. Iñaki Beraetxe eta Aitzpea Goenaga dira aktoreak, eta izenen, zenbakien eta koloreen magia aurkitzeko hiru ipuin kontakutuz dizkiete, irudimenez eta umorez betetako ipuinak, hain zuzen.



lazko Andramaixetan jende asko geratu zen *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlan ikusi ezinik. Orain beste aukera bat izango du.

Maiatzaren 13an, bestalde, nagusiek izango dute antzerkia ikusteko aukera. Mikel Laskurain eta Teresa Andonegi aktoreek *Arrautza delikatuak* antzezlan eskainiko dute udaletxe zaharrea. Absurdian oinarritutako antzezlan horrek bi pertsonaiaren arteko gorabeherak aurkeztuko dizkigu, komikotasuna nagusi izango dela.

Hilaren 20rako, ostera, asmarren gaineko hitzaldia antolatu dute. Krisi berriak nola saihestu azalduko du Karmele Benito del Vallek. Medikuntzan lizentziaduna da Karmele, psikoterapia, homeopatia eta familia medikuntzan espezializatua.

Hil bukaeran, 28an, *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlan eskainiko du Gorringo taldeak. Andra-

maixetan herritar asko hura ikusi ezinda geratu zela eta ekarri du Kultura Sailak bigarren aldiz. Oraingoan kirol etxean izango da emanaldia, eta 6 euro ordaindu beharko da aurrez, edo 8 egunen bertan.

Bukatzeo, ekainean, Donato Goyeneche perkusio joleak eta Agurtzane Elustondo trikitilariak kontzertua eskainiko dute.



### Eguraldi bikaina eta giro ezin hobea aurtengo Dantzari Egunean

Joan zen domekan ospatu zuten ibarrean urtero antolatzen duten Dantzari Eguna. Aurten Aretxabaletan egin dute, eta Antzuola, Arrasate, Bergara, Elgeta eta Oñatiko 150 dantzari inguru batu ziren herriko plazan. Hauen ekitaldia bukatutakoan Iparraldeko Dantza Pika taldearen emanaldia izan zen, eta giro ezin hobea sortu zuten. Herritar ugari animatu zen dantzan egitera. /M.A.

## LABUR

### Hainbat lantegitan egin zuten lanuztea eguaztenean

Lan Osasun eta Segurtasuneko Nazioarteko Eguna izan zen eguaztenean. Sindikatuek lanuztea egiteko deialdia egin zuten, eta Aretxabaletan ere hainbat langilek etena egin zuten.

### Sinadurak batuko dituzte Europako hauteskundeetarako

Herritarren Zerrenda-HZ taldeak Europako hauteskundeetan Euskal Herria nazio moduan aurkezteko egitasmoa deitu du. 40.000 sinadura batzea du helburu. Aretxabaletan, udaletxean batuko dituzte: astelehenetik eguenera 09:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 18:00etara; egubakoitzetan 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:00etara.



**JIAIK/** Maiatzaren 15ean ospatuko dugu Euskararen Eguna, eta egunez egingo diren ekintzetan parte hartzea gura dute

# Herritarren parte-hartzea bultzatu gura du Loramendi EEk aurtengo Euskararen Egunean

M.A.

Maiatzean sartuko gara asteburuan, eta hainbat jai izango ditugu hilabete horretan. Aurten, hilaren 15ean ospatuko dugu Loramendi EEk antolatzen duen Euskararen Eguna. Herritarrek inoiz baino gehiago parte har dezaten gura dute, gainera.

Loramendi Euskara Elkarteak urtero antolatzen du Euskararen Eguna maiatzean. Aurten, 15ean izango da, zapatua, eta egunari bizitasuna ematen herritarrek lagun diezaieten gura dute.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Loramendi EEk antolatutako jai bada ere, beti hartu izan dute parte herritarrek. Aurten, baina, ahalegin berezia egin gura dute eguneko festak indar handiagoa izan dezan. "Egunez egingo diren ekintzak indartu gura ditugu, eta giro berezia sortzea gurako genuke", dio Larraitz Arando Loramendi EEko dinamizatzaileak, "eta horretarako ezinbestekoa izango da herritarren parte-hartzea". Hori horrela *Eitiko prest?* leloa jarri diote aurtengo Euskararen Egunari.

## BETIKO EKINTZAK, INDARTUTA

Baina zela hartuko dute parte herritarrek? Betiko ekintzak egingo dira aurten ere. Herriko txalapartariak egingo diote egunari ongiatorria, eta eguerdi partean Joxe Olabek hainbat kanpai



Aurten ere, herri bazkarirako babarrunak herriko hainbat gastronomia elkartet egingo dituzte.

jotzeren erakustaldia eskainiko du. Ludotekako arduradunek Koadrillategiko gazteen laguntzarekin umeendako tailerrak antolatuko dituzte: aurpegi margotzea eta marrazkigintza landuko dituzte.

Ohiturari jarraituz gazta eta sagardoa izango dira protagonista eguerdiko orduetan. Gazta, gainera, inguruko baserrietatik ekarriko da, eta hainbat motatakoa dastatzeko aukera izango dute herritarrek. Bazkaria, azken urteotan moduan, herriko elkar-

teek egingo dute. Uratz Alde, Muru Alde eta Urbaltz elkarteek babarrunak gertatuko dituzte eta Batzokiak kafea egingo du, herri bazkarira doazenendako.

Bazkalostea girotzeko antzerkia egongo da. Herriko gazte talde bat animatu da, gainera. Perkusioa gustuko dutenek, ostera, batukada erakustaldia egingo dute. Zela jo ikasteko ikastaroa antolatu zuen Loramendi EEk orain aste batzuk, eta Martin Antxia dabil irakasle. 20 gazte baino gehiago ibiliko dira maiatza-

ren 15ean burrundara sortzen herrian.

Gau partean tabernetan ibiliko da jende asko. Hori jakinda, eta euskara izango dela protagonista ziurtatu guran, euskal musika duten CDak banatuko dizkiete tabernariei. CD horretan, kantu baten eta bestearen artean aretxabaletarren hitzak entzun ahal izango ditugu.

Egitarau bikaina antolatu digute Loramendi EEkoek; orain, herritarren txanda da. Girotu dezagun eguna behar bezala.

## LABUR

### Ohiko osoko bilkura egingo dute maiatzaren 10ean

Bi hilabete behin egiten ditu Aretxabaletako udalbatzak ohiko osoko bilkurak, eta hurrengo maiatzaren 10ean izango da; beti bezala 18:30ean, udaletxe osoko bilkuren aretoan.

### EHNA dagoeneko tramita daiteke udaletxean

Dagoeneko hasi dira EHNA tramitatzen udaletxean. Harreran dituzte bete behar diren inprimakiak; horrekin batera hiru argazki, 15 euro eta udaletxean bertan eskatu behar den errolda agiria besterik ez da behar. 14 urtetik beherakoek, ostera, familia liburuaren kopia aurkeztu behar dute.

### Elizbarrutiko gaixoen erromesaldia egingo dute Lourdesera

Donostiako Elizbarrutiak urtero antolatzen du Lourdesera erromesaldia. Aurten maiatzaren 21etik 24ra bitartean egingo dute. Gaixoren batek joan gura izanez gero Osasun pastoraltzako kideekin egin dezala berba. Eguneko erromesaldia, ostera, maiatzaren 22an egingo dute.



## Irakur Maratoiarekin, agur topaketei

XIII. Literatura Topaketak egin dituzte astean Kurtzebarri eskolan. Ekitaldi ugari izan dituzte azken egunotan; Aitzpea Goenaga aktore eta idazleak, esaterako, euskal piraten gainean egin zien berba Lehen Hezkuntzako. Ipuinak, olerkiak, bertsoak, aho korapiloak... Hori eta gehiago landu dituzte, eta asteari bukaera emateko Irakur Maratoia izan zuten atzo. /M.A.

# Ibon Antero Hiruatx taldeko kidea Ekuadorko Rukullaktan da berriro

Ekuadorko Rukullakta herrian dabil egiten azken proiektua Hiruatx, Hirugarren Munduari laguntzeko taldea. Markinako Mundu Zabala elkartearekin eta Mundukide Fundazioarekin elkarlanean, Amazoniako kitxuen herrian pentsu lantegia abian jartzea eta oiloen hiltzea eraikitzea du helburu Hiruatxek.

## 62.000 EURO FALTA

Hiruatxeko kide Ibon Antero ia urtebete eman zuen kitxuei laguntzen. Abenduan itzuli zen Aretxabaletara, eta hiru hilabeteren ostean bueltatzea erabaki du, iraila bitartean. Hemen egin duen tartean, Hiruatxek kitxuekin duen elkarlana zela hobetu aztertu du. Izan ere, eraikinak egiten laguntzea baino garrantzitsuagoa da egindako lantegiak eta kooperatibak euren kabuz kudeatzen eta zuzentzen erakustea. Hala, horretarako gauza direla erakutsi beharko die Ibonek, baita konbentzitu ere.



Iraila bitartean Rukullaktan egongo da Ibon, Amazoniako kitxuei erakusten.

Dirulaguntzari dagokionez, oso pozik daude Hiruatxeko kideak orain arte batutakoarekin. Izan ere, 84.000 euro batu zituzten pentsu lantegia jartzeko.

Orain, baina, bigarren helburua lortu guran dabilta, hau da, oilo hiltzea eraiki. Horretarako 62.000 euro falta zaizkie, eta herritarren artean batzea espero dute.



SQUASHA

## Squash txapelketa jokatuko dute Aretxabaletako kirol etxean

Squashean jokatzen duen edonork har dezake parte; ez dago federatuta egon beharrik

M.A.

Debagoieneko eta Aretxabaletako kirol zerbitzuek squash txapelketa antolatu dute. Squashean jokatzen duten guztiei dago zuzendua, eta ez dago federatuta egon beharrik parte hartzeko. Maiatzaren 5ean, eguaztena, bukatuko da izena emateko epea.

Squash txapelketa egingo dute maiatzean kirol etxean. Hilaren 5ean izena emateko epea itxiko dute, eta horren arabera 8an edo 15ean hasiko dute txapelketa.



ARTXIBOA

Maiatzaren erdi inguruan emango diote hasiera squash txapelketari kirol etxean.

### BI FASE IZANGO DITU

Txapelketaren lehenengo fasea liga erara jokatuko dute, hau da, denok denen aurka. Hau bukatutakoan, onenak bigarren fasea pasatuko dira: final-laurdenak, finalerdia eta finala jokatzera, hain zuzen.

Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra 16 urtetik gora

izatea da, eta ez dago federatuta egon beharrik. Iñaki Uribebarria aretxabaletarra ibiliko da epaile lanetan. Aipatutako txapelketa, bestalde, Debagoieneko txapelketa zirkuiturako puntugarria izango da.

Debagoieneko edozein kirol-degitako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dute lehenengo partidua jokatzen duten egunean, eta gainerakoek 15 euro. Izena eman gura duenak dei egin dezala kirol etxera: 943 71 26 28.

ATLETISMOA

## Otala Zelaiko herri krosa aurten maiatzaren 16an egingo dute

Otala Zelai egunarekin batera egitea erabaki dute, herritarren parte-hartzea bultzatzeko

M.A.

Maiatzaren 16an egingo dute aurten Otala Zelaiko herri krosa. Herritarren parte-hartzea bultzatu gura du Udaleko Kirol Zerbitzuak, eta horretarako, Otala Zelaiko jaiarekin batera egitea erabaki du. Hortaz, Otala Zelain bertan hasi eta bukatuko da lasterketa.

Aurten 26. krosa egingo dute. Dagoeneko ibilbide luzea egin du herri lasterketa horrek, eta orain arte maiatzeko lehen domekan egin izan dute. Aurten, ostera, atzeratzea erabaki dute, eta Ota-

la Zelai egunarekin batera egitea. Ea horrela herritar gehiagok hartzen duen parte.

### OTALA ZELAIN HASI ETA BUKATU

Otala Zelain bertan emango diote hasiera lasterketari eta helmuga ere han izango du. Horrek zerbait luzatuko du ibilbidea, bi kilometro inguru.

Lehenengo, benjaminek, alebinek, infantilek eta kadeteek hartuko dute parte. Bakoitzaren adinera egokitutako ibilbidea izango dute horiek, 600 metrotan hasi eta 2.000 metrora bitartean. 11:00etan, ostera, gainerakoek emango diote hasiera, juniorrek,

seniorrek eta beteranoek, gizonen zein emakume. Urkuluko urtegiari bi itzuli emango dizkioten bakarrak gizonen seniorrak izango dira, guztira 15.110 metro egingo dituzte.

Izena egunean bertan eman beharko dute parte-hartzaileek, lasterketa hasi baino ordu eta erdi lehenago 5 euro ordainduta. Zenbakiak ondoren, 09:30etik 10:30ak bitartean banatuko dizkiete antolatzaileek. Kategoria bakoitzeko lehen aretxabaletarrak 25 euroko saria jasoko du, eta parte-hartzaile guztiek jasoko dute lasterketako kamiseta. Sariak ere zozketatuko dituzte.

UDA

## Eguenean, maiatzak 6, batzarra egingo du berriro Aretxabaletako Kirol Elkarteak

Aurtengo hirugarren batzarra egingo du Aretxabaletako Kirol Elkarteak, UDAk, datorren egunean, 19:00etan, kultur etxeko bideo gelan. Zuzendaritza batzarra berritzeko herritar bila dabilta azken hila-beteotan, eta batzar horretan, orain arte egindako ahaleginak eta emaitzak azalduko dituzte. Gogoratu ohiko batzarra ekainean izango dela, eta zuzendaritzako kideek kargua uzteko asmoa dutela.

XAKEA

## San Viatoroko Xake Bizkorreko Txapelketa jokatuko dute domekan aretxabaletarrek

Gasteizko San Viator ikastetxeak antolatu duen Xake Bizkorreko Txapelketa jokatzera joango dira domekan, maiatzak 2, Aretxabaletako xake jokalariek. Fran Miguel, Esteban Romero eta Aitor Alcaide izango dira, hain zuzen, parte hartuko dutenak. Aipatu, bestalde, aretxabaletarrek ere oso kezkatuta daudela Eusko Jaurlaritzak xakea kirolen taldeetik ateratzeko hartu duen erabakiarekin.

FUTBOLA

## Eibarko taldearekin berdindu ostean kopa irabazteko aukera guztiak dituzte neskek

Kopa txapelketa jokatzen dabil nesken Almen/UDA taldea. Joan zen astean, sailkapenean lehenengo postuan dagoen Eibarko taldea izan zuten aurrez aurre, eta hiruna berdindu zuten. Talde aretxabaletarra bigarren postuan dago, eta kopa lortzeko aukera guztiak ditu oraindik. Hurrengo asteburuan derbia jokatuko dute Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian, Mondra taldearen aurka.

PILOTA

## Lehenbailehen ahaztu beharreko partidua jokatu zuten Errasti anaiek bergararren aurka

Bergararren aurka jokatu zuten Errasti anaiek joan zen astean Debarroko Txapelketako pilota partidua. Oso partidua txarra egin zuten, eta 22-4 galdu; hortaz, lehenbailehen ahaztu, eta indarrak berreskuratuta hartu dituzte aste honetan arrasatearrak. Aurrekoa galdu arren, oraindik aurrera jarraitzeko aukera daukate; hemendik aurrera jokatuko dituzten partiduek erabakiko dute.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

#### Zarautz-UDA

Preferentea.

Domeka. 17:00. Ibarra.

#### UDA/Almen-Beti Gazte

Lehenengo mailako kadeteak.

Zapatua. 11:00. Ibarra.

#### UDA-Antiguoko

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

#### UDA 3 Tolosa 3

Preferentea.

#### UDA 0 Sto. Tomas lizeoa 1

Ohorezko gazteak.

#### Zestoa 6 UDA 3

Lehenengo mailako gazteak.

#### Añorga 1 UDA 1

Lehenengo mailako kadeteak.

#### UDA 8 Ostadar 1

Bigarren mailako kadeteak.

#### UDA 1 Antiguoko 6

Ohorezko infantilak.

#### Almen/UDA 1 Zumaiaiko 1

Lehenengo mailako infantilak.

#### Almen/UDA 3 Eibar 3

Emakumeen kopa.

#### Almen/UDA 3 Zumaiaiko 1

Emakumeen kopa F-8.

#### Spo. Herrera 2 UDA 4

Alebinak.




Herriko plaza z/g ARETXABALETA



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26




Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN  
AURKAKO TRATAMENDU  
ANTIXILOFAGOAK EGURREAN,  
ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)  
649 84 67 09 (BERGARA)



HURRETIK



**Kepa Errasti**

ARTE ESZENIKOKO IKASLIE

Kepak kazetaritza ikasketak egin zittuen Bilbon, baiñe betidanik antzerki mundue atsegin izen dau. Astelehenien Kursaalien antzezlari baten hartu euen parte. Aktore lanetan ibilli gureko leuke, eta zaille izen arren, saietu egingo dala aittetu dusku.

**Zer egitten dozu Donostian?**

Donostiako Arte Eszenikoen Taillerrien nabil ikesten. Hiru maila daz, eta lelenguen nabil. Kantue, gorputz-espresioñue eta interpretazioñue ikesten dou bertan.

**Astelenien Kursaalien arittu zitzen.**

Bai, *Urduri ni?* obraren estreinaldixe izen zan. Donostiako Udal Musika eta Dantza Eskoliek antolatuteko ikuskizune da. Guztire 200 bat pertsonak hartzen dou parte: protagonistak, orkestrie, korue, dantzariak...

**Zein izen da zure lana?**

Neu, beste hemezortzikin batera, antzezlariako kuadrillako kide naz, eta dantzan egin, abestu eta antzeztu egitten dot.

**Noiz hasi zitzen ikuskizun munduen?**

Oin dala zortzi bat urte. Arrasate Euskaldun Dezagun elkartiek antzerki taillerra prestau euen, eta bertan hasi nintzen. *Zaragozako herriarrak* izen zan ein neuen lelengo ikuskizune.

**Zer egin dozu ordutik?**

Drag queen ikuskizun baten ibilli nintzen; Bilbon kazetaritza ikesten nenbillela antzerki ikastaruen arittu nintzen. *Goenkaleko* kapituloren bat be grabau dot. Bestetik, oin dala gutxi, Andoaingo zine eskolak egindeko laburmetrai baten hartu dot parte.

**Aurrera begire badauketzu proiekturik?**

Barañainen *Urduri ni?* antzezlana aurkeztuko dou maiatzien 8xen. Bestetik, *Eskuak Elkarr* Mondragoeko historixien gaineko ikuskizun baten hartuko dot parte.

**Etorkizunien be aktore lanetan ibiltteko gogoz?**

Aktore munduen saiekietie gura dot. Ez da oso errexa izengo, baiñe saietu, saietuko naz.

**Kanpora irten biher da aktore izeteko?**

Beti esaten da Madrillen aukera gehixau dauela. Hori egixe izen arren, jende kopuru handixaue dauela ezin da ahaztu. Euskal Herrixen aukera gutxiaue egonda be, aktore izen gure dauen mutilek ez die asko, eta euskal esparruen, gutxiaue. Horrek hamen geraketara bultzeketan nau. Baiñe ez dakit aurrera begire ez nazen kanpora urtetera animauko.

ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

**NIREBIDAIAHURA / Nerea Altube**

BOLOGNA, FLORENTZIA ETA VENEZIA (Italia) / 2001eko ekaina

**D**agoeneko hiru urte etorriko dira Nerea Italiara joan zenetik, baina fresko-fresko dauka oraindik buruan. Bolognan ikasketak burutzen zebilen lagun bat ikustera joan zen, eta 10 egun pasatu zituen. Italia erdialdean dauden hiru hiri ikusi zituzten: Bologna, Florentzia eta Venezia. Izan ere, Arte Ederretako ikasketak ditu eginda Nereak, eta Italiako artelan ospetsuak ikusteko aukera ezin zuen galdu.

Bolognak, artelanei dagokionez, ez dauka garrantzitsurik, baina unibertsitatea daukan hiria izanda kultur ekitaldi ugari egoten dira: "Bertako eta kanpoko ikasle asko daude Bolognan, eta horrek giro berezia sortzen du hirian. Kontzertuak, antzerkiak... kulturari dagokionez oso aberatsa da" dio Nereak.

Florentzia, ostera, guztiz ezberdina da. "Artea da Florentzia, izkina guztietan dago zerbait ikusteko, eta ez nolana hiko, gainera". Hiria oso ondo daukate zainduta agintariak: lorategiak, izugarritzako erreka, museoak, elizak... eta turistak han eta hemen aurkitzen dira. "Hainbeste dago ikusteko... Brunelleschik margotutako katedralaren kupula, Berniniren eskulturak, Migel Anjelen palazioa... Horiek batzuk aipatzearren". Hortaz, artea gustuko duenak derrigorrez ikusi behar duen hiria da.



*"Artea da Florentzia, izkina guztietan dago zerbait ikusteko, eta ez nolana hiko, gainera"*

*"Mutilek, bestalde, ligatzea dute gogoko eta neskei sarri esaten dizkiete berba politikak kalean"*

kei sarri esaten dizkiete berba politikak kalean". Gustura itzuli zen Nerea; erosketak ere egin zituen, izan ere arropa eta batez ere oinetako benetan dotoreak aurkitu zituen. Hori bai, garestitxoak.

Z.V.M.



Arkitektura aldetik eraikin zoragarriak miresteko aukera izan zuen Nereak, Bolognan, Venezian eta Firenzen.

**Ezkutu TABERNA**

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**J.J. IRURE**

ITURGINTZA

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paper denda ✿  
✿ Liburuak ✿

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

**Dorleta taberna**

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 94 15



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko apirilaren 30a / 164. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Askotariko aukera egongo da Eskoriatzan maiatzerako antolatutako egitarauan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Igaro da apirila, eta hilabete berriak egitarau zabala dakar berarekin. Besteak beste, musika, hitzaldiak, literatura eta uretako jolasak izango dira hileko protagonistak. Adin eta gustu gehienentzako aukera zabala. Domekan emango zaio hasiera, Aitzorrotz Egunarekin.

Maiatzean zehar hainbat ekimen eramango dituzte aurrera herrian: hitzaldiak, musika emanaldiak... Gustu guztientzako aukera.

### AUKERA ANITZA MAIATZEAN

Aitzorrotz Egunarekin hasiko da maiatza. Domekan izango da, eta eguna primeran pasatzeko egitaraua antolatu dute.

Amuskak antolatuta, *Al otro lado de la cama* filma eskainiko dute kultura etxean datorren egubakoitzean, hilak 7. Ondoren, solasaldia egongo da.

Maiatzaren 13an parrokiako Osasun Pastoralak deituta, Millan Viñas apaizaren eskutik, *Jesusen jarrera gaixo eta urrunduen aurrean* hitzaldia.

Musika izango da entzungai Eskoriatzan hilaren 14an. Rafa



Hilabetea amaitzeko, uretako parkea antolatuko dute gazte eta helduentzat.

Ruedak kontzertua eskainiko du Gaztetxean. Eskoriatzako Musika Eskolako Bandak, udaberriko kontzertua eskainiko du maiatzaren 16an herriko plazan.


Bestalde, gazteek uretako parkera joateko aukera izango dute hilaren 23an, domeka. Bertan, hainbat puzgarrirekin jolasteko aukera izango dute.

Hilabetea amaitzeko, ipuin kontalariak egongo dira, heldu eta gazteentzako. Umeen txanda maiatzaren 27an izango da; helduena, berriz, hilaren 28an.

*'Udaberriko kontzertua' eskainiko dute Musika Eskolako Bandako kideek*

*Uretako parkean puzgarriekin ederto igarotzeko aukera izango dute ume, gazte eta helduek*

*Ipuin kontalariak etorriko dira, bai gazteentzako, bai helduentzako emanaldiekin*



### Eguneko zentroaren inaugurazioa

Eguaztenean, apirilak 28, inauguratu zuten Eskoriatzako eguneko egoitza. Bertan, Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak egon ziren. Beraiekin batera, Jesus Ortiz de Urbina apaiza egon zen eta elizgizonak egoitza bedeinkatu zuen. Aurreko legealdian egin zuten egoitza, baina azken uneko arazoak medio, atzeratu egin da irekiera. Hamabost laguntzako tokia duen arren, hamar eskoriatzar joaten dira eguero bertara.

### LABUR

### Irakurketa Maratoia liburuaren eguna ospatzeko

Arizmendi ikastolako Almen gunean irakurlearen astea ospatu zuten aurreko astean. Egubakoitzean, apirilak 23, berriz, liburuaren eguna izan zen, eta Almenen ere egin zuten ekimenik. Ikasleek zerbait berezia egin gura izan zuten, eta hori dela eta, maratoi bat antolatu zuten. Irakurketa maratoia izan zen egubakoitzekoa. Egitasmoarekin ikasleek artean irakurtzeko zaletasuna sustatzea izan dute helburu. Ikusi egin beharko asmoak egi bihurtzen diren.



EGITARAU ZABALA ANTOLATU DA AITZORROTZ EGUNERAKO

# Domekan Aitzorrotzera jende ugari joatea espero dute antolatzaileek

Z.V.M.

Azken urteetan bezala, Aitzorrotz eguna ospatuko da domeka honean. Egun horretan batzen den dirua Eskoriatzako gutxitu fisiko eta psikikoen elkarrekin eta Atxorrotz ONGak dituen proiektuei laguntzeko izango da.

**DOMEKAKO EGITARAU**

Goizeko 9:00etan txistulariek diena joko dute, eta horrela emango zaio hasiera Aitzorrotz egunari. 9:30etan mendira igotzen hasiko dira mendizaleak.

Gora iritsita, 11:30etan nahi duenak meza entzuteko aukera edukiko du. Ostean, Jon Ansoregi eta Andoni Larrañaga trikitilariak arituko dira. Beraiekin batera bi bertsolari: *Mañukorta*, eta Azpillaga arituko dira Aitzorrotzera animatzen direnen gozamenarako. Iazko ekimenean, bi bertsolari gazte aritu ziren kantuan, Amets Arzallus eta Sustrai Colina hain zuzen ere.


Bazkaria ere egingo dute domekan. 80 pertsonentzako txartelak jarri zituzten salgai. Egu-

*Jasotako dirua, gutxitu fisiko eta psikikoen elkarrekin eta Atxorrotz ONGra bideratuko dute*

raldiak lagunduz gero, giro paregabean igaroko dute domeka eskoriatzarrek. Biribilkia saltsan, postrea, edariak, kafea, pattarra eta purua eskainiko zaie mendizaleei. Sabela beteta, 17:00etan hasiko dute Eskoriatzara jaitsiera. Ondoren, herriko plazara zuzenduko dira, eta 18:30etan dantzaldia egongo da bertan; *Kaixo* taldearen eskutik izango da. Horrekin batera, herritarrek egindako patata tortillak jateko aukera izango dute eskoriatzarrek.

**IAZ, GIRO PAREGABEA**

Iaz eguraldiak asko lagundu zuen, eta horrek jende kopuru handia erakarri zuen Aitzorrotz igotze-



Iaz jende ugari igo zen Aitzorrotzera, egun berezia ospatzeko.

ARTXIBOA

ra. Bestalde, patata tortilla ugari egin zituzten herritarrek, eta diru asko biltzea lortu zuten. Aurtengoan ere, herritarren laguntza ezinbestekotzat jotzen dute anto-

latzaileek beraien egitasmoak aurrera eraman ahal izateko. Mendiaz eta inguruez gozatzeko aukera domekan, baita elkarrekin desberdinei laguntzeko ere.

**TELEFONJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaingoa (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**ERAKUSKETAREN AZKEN EGUNAK**

Kultura etxean dagoen Errepublikan eta Gerra zibilari buruzko erakusketak domekan itxiko ditu ateak. Bihar, 17:30etatik 20:30etara egongo da irekita; etzi goizez ere irekiko dituzte ateak, 12:00etatik 14:00etara.

**'IPARRALDEA BERTAN'**

Iparraldea bertan hamabostaldien barruan, Erramun Martikorenak emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza. Kiroldegian izango da hitzordua, 22:30etan. Bertara joan nahi izanez gero, 5 euro ordaindu beharko da sarrera.

**'HERRITARREN ZERREDA'**

Herritarren Zerrenda osatzeko, herritarren sinadura bila dabilza. Herritarren Zerrenda Europako hauteskundeetan izatea nahi dute. Horretarako, maiatzaren 8ra arte Udaletxeko bulego ordutegian joan beharko dute interesatuek sinatzera.



**Berrogehi bat lagun joan ziren Donostia aldera**

Autobideak kaltetutako elkarteko kideek prentsaurrekoa eman zuten astelehenean, hilak 26, Donostian. Bertan, Eibar-Gasteiz proiektuak Eskoriatzan eragingo dituen kalteak salatu zituzten. Diputazioak aurkeztutako ibilbidean egin diren aldaketek eragin negatiboa dute la adierazi zuten. Goizean, diputaziokoekin elkartu eta alegazioak egiteko epea hamabost egunetan luzatu zieten; denbora gutxi kaltetu eskoriatzarren esanetan.

**LABUR**

**'Barre barra-barra', ipuin barregarrien lehiaketa abian**

Debagoieneko Euskara Elkarrekin elkargoak, Debagoieneko ipuin barregarrien lehiaketa antolatu du. Axtroki elkarteak herritarrek parte hartzea deitzen ditu. Norberaren euskalkian idatzi edo grabatu beharko dira ipuinak. Maiatzaren 28rako lan guztiak aurkeztu beharko dira, eta ekainaren hasieran epaimahaia bere erabakia kaleratuko du. Idatzizko lanik onenak 450 euro jasoko ditu, bigarrenak 150 euro. Ahozkoaren kasuan, 300 euro pasadizo onenari.

**BEIRALAN**

KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

**Markoztatzea**



Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

**ALZA**

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3  
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

**DORLETA**

Aranburuzabala 22, behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20



## BILERA EGIN ETA BI EKIMEN ANTOLATU DITUZTE

## Aurtengoan ere egingo da txirrindulari lasterketa

Z.V.M.

Aurreko astean bilera egin zuten udal ordezkariak eta txirrindularitzako ordezkariak. Ondorioz, datozen hilabeteetako egitarauari buruz egin zuten berba, eta urria eta irailerako ekimen bat edo beste prestatu dute: txirrindulari lasterketa eta mendi bizikleta irteera.

Aurreko astean, Jon Sasiain zinegotzia Dorleta Txirrindulari Batzordeko ordezkariarekin elkartu zen. Urteko lehenengo bilera egin zuten horrela, baina erabaki gutxi hartu zituzten.

## BILERAREN NONDIK NORAKOAK

Gai desberdinen inguruan hitz egin zuten Gatzagako udal eta txirrindularitza ordezkariak. Hala ere, aurtengo egitaraua izan zuten berba gai nagusi batzar horretan.

Urteko lehenengo bilera apirilean egin dute, eta datorren astean ere, beste bat egiteko asmotan dabilzala aipatu du Sasiainek. "Lehenengo hau, nahiko bilera eskasa izan da, jende gutxi

batu baiginen bertan", adierazi du. "Urtean zehar elkarlanean zer egiteko asmotan gabiltzan aipatu genuen bileran".

## AURTENGO LASTERKETA, AURRERA

Iaz, Gatzagako 25. Txirrindulari Lasterketa antolatu zen. Aurtengoan, nahiz eta data berezia ez izan, 26. urtemuga ospatuko dute la adierazi digu Sasiainek. Irailaren 5ean izango da hitzordua.

Dorleta Txirrindulari Batzordekoak pozik geratu ziren iazko ekimenarekin, oso maila ona eman baizuten kirolariak. Herria itxura aldatu egin zen lasterketaren ondorioz. Jende ugari gerturatu zen; batez ere txirrindularitzara zaletuak.

Toki guztietako jendeak hartu zuen parte urtemuga berezian. "Granadako talde bat ere izan zen gurean. Avila Rojas taldeko kideak izan ziren horiek, eta maila bikaina erakutsi zuten; horren erakusgarri, lortutako postuak", aipatu du Sasiainek.

Aurtengo edizioan antzerako maila lortu gurako lukete. Gainera, herritarren parte hartzea bultzatzea ezinbesteko dela diote.

## MENDI BIZIKLETA

Bestalde, urriaren 3an Mendi Bizikletako Irteera egin gura dute. Bigarren irteera izango da aurtengoa, eta iazko 27 kilometroko ibilbidea egitea pentsatuta duten arren, oraindik goiz da irteeraren nondik norakoak finkatzeko. Ez da azken erabakirik hartu, prestatzeko denbora behar baita. Horregatik, antolaketa lanetan hasi dira dagoeneko. Iaz 70 lagunek hartu zuten parte irteera horretan, asko ibarrekoak ziren. Nahiz eta lehenengo irteeran eguraldiak lagundu ez, jendearen erantzuna oso ona izan zen, eta aurtengo jendea animatzea espero dute.

*Aurtengo lasterketan ere maila bikaina egotea espero dute antolatzaileek*



## Osoko bilkura atzeratu egin dute

Hileko azken egunetan osoko bilkura egiteko ohitura dute Gatzagako udaletxean. Hala ere, atzo egin beharrekoa atzeratu egin da, hainbat arrazoi direla medio. Udaletxeko langileek adierazi digutenez, bilkurak ez dira derrigorrez egun horietan egin behar, eta horregatik erabaki dute datorren hilerako uztea. Oraindik ez dute datarik zehaztu, baina lehenengo edo bigarren astean egiteko asmoa erakutsi dute. Baina bada zehaztu gabeko beste kontu bat: Gatzagako osoko bilkuren aretoan landuko den gai-zerrenda, hain zuzen ere.



## KZGuneako ikastaroak amaitu dira dagoeneko

Garro jauregian kokatuta dagoen KZGuneak ematen dituen ikastaroei amaiera eman zaie. Horregatik, Udalak bertako hainbat ordenagailu eskuratu gura ditu herritarrek erabilgarri izan ditzaten. Horrela, orain arte herrian zegoen hutsunea bete gura dute; ikastaroetan ikasitakoa norberak bere kabuz praktikan jartzea, alegia. Ordenagailuen kokalekua zein izango den eta ordutegi batzuk zehaztu beharko dira horretarako.

## LABUR

## Jende gutxi 'Iparraldea bertan' egitasmoan

*Iparraldea bertan* kultura hamabostaldien aurkezpena egin zen Oñati eta Gatzagan. Herrian egin zen hitzaldian ez zen jende askorik izan. Bestetik, martitzenean kendu zuten astebetez Garro jauregian egon den ukipen pantaila. Antolatzaileen esanetan, uste baino jende gutxiagok hartu du parte ekimenean. 400 irudiz, 15 soinuz eta bideo batez osatutako pantaila modernoan, historia, ekonomia, kultura eta abarri buruzko informazioa eskaini zen.

# Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...  
gaineke informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

**LENIZ**  
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**SUZUKI**

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura



Udaberria  
etorria da...



**ALBOKA**  
GAZTE MODA

Durana 36, Aretxabaleta Tel.943 77 16 10



Durana kalea 33

ARETXABALETA

Tel.: 943 79 10 14

**PAGALDAi**

**Udaberria geurean!**



# Telleria Baserriko Jaia

arrasate-mondragón

Keramikagileen

Topaketa

- zeramika erakusketak
- umeentzako tailerrak
- bideo emanaldia
- laba eraikuntza
- raku gava...

maiatzak

6-7-8

eta 9

-Antolatzen du:



-Babesleak:

